

GIL 11 Arteako Weald beltzeko seriea



Arteagako ebakiaren itxura orokorra, errepideko ezpondan.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 07' 05,16" N

Long.: 2° 48' 29,91" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 515.480,11 m

Y: 4.773.697,81 m



Nola iritsi

Arteaga-Gaztelu-Elexabeitiko herritik autoz joaten da, BI-3513 errepidea Orozkorantz hartuta; Lauretako etxeetara iritsi baino lehentxeago, eskuineko aldean daude azalera-menduak, Upora eta Pagomakurrera doan baso-pistaren bidegurutzearen parean.




Ebakia arbel beltzez osatua dago nagusiki, eta hareharri tartekatze lodi samarrak dauzka.

GILaren deskribapen laburra

Arteagako flysch beltza lutita beltzez osatua dago eta ur gazitako gasteropodoak dauzka (*Paraglauconia strombiformis*, SCHLOTHEIM); haietan, 3-4 m lodi diren pikor fineko hareharrien banku lodiak tartekatzen dira, pikor-tamaina eta estratuak gero eta handiagoak dituzten sekuentziak osatzen dituztenak (deltako gingilen progradazioaren adierazgarria da ezaugarri hori). "Areatzako formazio" deritzo unitate horri (Barremiarra), eta trantsizio bat markatzen du; hain zuzen, Kantabriako eta Arabako iparraldeko, Burgoseko eta Palentziako ibai-sistemetatik gaur egun Bilboren hegoaldean dagoen sektore zabal bat hartu zuten ur gazien estuario-faziesetarako trantsizioa.

Seriean, oro har, lutita beltzen faziesak dira nagusi (*black shales*), eta badituzte pirita-mailak, pirita-noduluak eta zenbait fosil piritizatu —hala nola *Cypridea* espezieko ostrakodoak, bibalbioak (adibidez, *Cercomya garmillai*, Calzada), iktiofauna klupeomorfoaren ordezkariak (adibidez, *Eskutuberezi carmeni*, Poyato-Ariza), eta lehenago aipatu ditugun eta nagusiki GIL honetan pilatzen diren gasteropodoak—. Gasteropodo-maila horiek jatorri mekanikoa dutela dirudien arren, serieko hainbat mailatan dauden maskorkontzentrazioak uren bat bateko gazitasun-aldaketaren ondorioz sortuak dira, zeinek ostrakodoen edo bibalbioen oriktozenosia eragin baitzuten. Bestalde, nabarmena da sektore horretako ingurune sedimentarioa oso anoxikoa zela, eta badaude hausturan kiras-dunak eta itxuraz azoikoak diren kareharrien erregistro batzuk. Barremiarreko estuarioak Aptiarreko transgresio handiari bide eman zion, eta transgresioak arrezife-erakuntzak sorrarazi zituen, inguru horretan Urgondarreko kareharrizko hainbat gorputzek erakusten dutenez (Aptiar-Albiarra).



Purbeck-Wealdeko delta-estuarioko fazies mota honen eredu-zutabe.

Azaleramendua oso garrantzitsua da, ez baita halako asko eta wealdar unitate honetako azaleramenduak ez baitira kalitate onekoak, oro har. Errepide honetako ebakiak, gainera, aukera ematen du Behe Kretazeoko Aptiarraren aurretik gertatu ziren eta lehenago aipatutako delta-estuario sistemaren ezaugarri zehatzak ezarri zituzten prozesu sedimentologikoen zenbait balorazio egiteko.

Behatzeko punturik onena

In situ, errepidetik.



GILaren inguruko Areatza formazioko gasteropodoak.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 61, GIL 56, GIL 131.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 9, GIL 12.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- García Garmilla, F. (1987): *Las formaciones terrígenas del "Wealdense" y del Aptiense inferior en los anticlinorios de Bilbao y Ventoso (Vizcaya, Cantabria): estratigrafía y sedimentación*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 340. or.
- García Garmilla, F. (1989): *The "Wealden" of Central Basque-Cantabrian Region (Villaro Formation): petrology and stratigraphic correlation with the western formations*. *Kobie*, 18: 35-49.
- García Garmilla, F. eta Calzada, S. (1987): "Cercomya garmillai n. sp. del Neocomiense vizcaíno". *Batalleria*, 1: 25-30.
- García Garmilla, F. eta Carracedo, M. (1989): "Diagenetic processes in the Ibarretxe Member (lower Cretaceous, Bilbao, Northern Spain)". *Kobie*, 18: 51-61.
- Poyato-Ariza, F.J., López-Horgue, A. eta García-Garmilla, F. (2000): "A new early Cretaceous clupeomorph fish from the Arratia Valley, Basque Country, Spain". *Cretaceous Research*, 21: 571-585.
- Rat, P. (1959): "Les Pays Crétacés Basco-Cantabriques (Espagne)". Zientzien Fakultateko tesia. Publ. Univ. Dijon. *Presses Universitaires de France XVIII*, 525. or.